

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

- Compañía Logística de Hidrocarburos CLH, S.A.,
- N-639 errepidea, Santurtzi-Zierbena z/g, 17 km + 800 (El Calero) 48980 Santurtzi - BIZKAIA

1254/1999 Errege Dekretua betetzea

CLH, S.A. enpresaren Santurtziko lantegiak uztailearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira).

Araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, enpresak nahitaez aurkeztu beharreko segurtasun-txostena aurkeztu dio eskumena duen agintari.

Enpresaren jarduera

Compañía Logística de Hidrocarburos CLH, S.A. enpresaren Santurtziko lantegia petrolio-produktuak (gasolina, gasolioa eta kerosenoa) jaso, biltegiratu eta banatzeaz arduratzen da.

Istripu larria eragin dezaketen gaiak

Instalazioetan ez da fabrikazio-prozesurik egiten, produktu horiek jaso, biltegiratu eta banatu besterik ez. Gai horien ezaugarriak eta kopuruak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalaziotik kanpo eragiten duten istripuak) istripu-mota zehatz batzuetan bakarrik gerta daitezkeela; lantegiko produkturen bat tartean denean, hain zuzen:

- Gasolina
- Gasolioa
- Kerosenoa

-

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

2. orria

Izan daitezkeen istripu larriak eta harien ondorioak

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- Gasolina, gasolioa edo kerosenoa isurtzea edo su hartzea.
- Gasolina-putzuaren lurrun-lainoaren deflagrazioa (UVCE) edo leherketa konfinatua gasolina-depositu baten barruan.

Istripu hauek bero-erradiazioa (sutea gertatzen bada) edo gainpresioak (eztanda gertatzen bada) sor ditzakete eta horiek pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean eragina izan dezakete. Aurreikusitako gainpresioaren edo bero-erradiazioaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko alderdia (EA) eta alerta-egoerako alderdia (AA). Hona hemen alderdi horiei dagozkien balioak eta ondorioak:

GAINPRESIOA

Alderdiak	Gainpresioaren balioa (mbar)	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
E.A.	125	Kristalak haustea.	Kristalak jauritzearen ondorioz, zauritzea.	---
A.A.	50	Trenkadak eta panelak haustea.	Trenkaden artean harrapatuta geratzearen ondorioz, zauritzea.	---

BERO-ERRADIAZIOA

Alderdiak	Bero-dosia (kW/m ²) ^{4/3} s	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
E.A.	250	---	2. graduko erreduarak	---
A.A.	115	---	1. graduko erreduarak	---

Istripu larria izanez gero biztanleei ohartaraztea eta informazioa ematea

Goian aipatutako istripuren bat eragin lezakeen istripu-egoera badago instalazioan, inguruko enpresei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Instalazioan larrialdiren bat badago biztanleek hartu beharreko neurriak

Instalazioan istripu larria gertatzen bada, biztanleek ondoren agertzen diren neurriak hartuko dituzte, istripu-egoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan istripu larria izanez gero, honako hau egin beharko da:

- Neurri egokiak hartu beharko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzan.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barruko Larrialdietarako Planean jasota daude.

Kanpoko Larrialdietarako Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdietarako Plana garatu du CLH, S.A. enpresaren Santurtziko instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egoerei aurre egiteko antolatzeko modua eta beharrezko baliabideak ezartzen dira.

Kanpoko Larrialdietarako Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatu behar duten adierazi da eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jaso dira.

Informazio gehigarria

Informazio gehigarria nahi izanez gero:

- Web orria: www.euskadi.net/112
- Telefonoa: 945 01 88 83